

### I. AURKEZPENA

Julen URKIZA, *Elizaren Historia Euskal Herrian. I. Ikerlan materialak. [Historia de la Iglesia en Euskal Herria. I. Materials de investigation].(Euskal idazketaren arduraduna: Luis Baraiazarra)*. Markina, 1995, 1459 orr.

A) Edokia. Liburu honek hiru atal ditu:

1. BIBLIOGRAFIA (17-476 orr.):


\* Zabal-zabala eta osoa: 11.000 titulu inguru.

- Hain material bibliografiko ikaragarria biltzen den lehenengo aldia da.

- Material honetatik gehiena egileak berak zuzenki ikusia eta bildua izan da.

- Bildutako lanen kalitatea, berezko denez, desberdina da, eta hortik zati handi bat nahiko balio txikikoa.

- Erraz antzeman daitekeenez, lan historikoetan erabilitako gaiak era askotakoak dira. Horrek Elizaren bizitzaren historia nahiko zabal eta osoa idazteko laguntza handia ematen digu.



## 2. HISTORIA ETA HISTORIOGRAFIA BIDEAN (477-1198.orr.)

### a) *Artxibo eta ikertzaileak*

Atal honetan ikertutako artxibo eta ikertzaile edo historialariei buruz ekarpen nahiko osoa eskaintzen da. Hau da, ikertutako artxiboen eta gaien berri ematen da, baita artxibo bakoitzean ikerketak burutu dituzten historialarien berri ere, ikertutako dokumentuak agertzen diren liburuen aipamenak eta abar eginez.

Beste aldetik, historialariak aztertzen dira, Euskal Herriko Elizaren historiaz beraiek egin dituzten ekarpenekin. Horrela,

orain arte egin izan den ikerlanaren kalitate eta estiloaren ikuspegi bat agertzen dugu.

Horrez gainera, argitaratutako iturriei begirada bat ematen zaie; hau da, kartularioak, bezerroak, agiri-bildumak etab., iturri horien deskripzioa eginez.

b) *Historian dagozkion gaiak*

Euskal Elizaren historian dagozkion gairik orokor eta garrantzitsuenak aurkezten dira, batez ere bibliografiaren ikuspegitik, baina batzuetan baita histori ikuspegia azpimarraturik ere.

Gai batzuk, nahitaez, oso orokorki aztertuak izan diren arren (baina beti bibliografiaren euskarriarekin), hala ere ahalegin handiagoa egin dugu hainbat gai aztertzerakoan, esaterako, elizbarrutien kapituluan, bereziki Baiona eta Iruneko elizbarrutien kapituluan, "Monasticon Vasconicum" delako gaian, eta "Hagiografiak eta biografiak" izenburuz agertzen den kapituluan, edo euskal teologoek historian zehar egin duten ekarpena agertzen duenean eta abar.

3. DOKUMENTUEN KATALOGOA (1199-1459-orr,):

Azkenean 2.000 dokumentu inguruko katalogoa dator, VI. mendetik XX.era bitarteko dokumentuak hartzen dituela. 3.000 inguru nituen prest (bildurik ditudan 10.000tik hautatuak) baina liburua mardulegia irtengo zela eta 1.000tik gora baztertu beharra izan nuen.

Hautaketa iritzira edo arbitrarioki egina izan zitekeen, nahitaez 2.000 garrantzitsuenak aurkeztu beharrik ere ez zen; nahiko garrantzitsuak ziren 2.000 dokumentu sartzea zen helburua. XX. mendekoaz salbuespen txiki bat egin dut, ez baititut dokumentuak bakarrik biltzen, baita garrantzi handiko gertakarien albisteak ere; hau da, herriz herri ematen ziren misioak, benetako gertakari bilakatu ohi zirenak.

Lehen-lehenik gogoan izan behar da benetako historia egiteko asmorik ez dudala izan (geroago egingo dudanez), honezke-

ro argitaraturik dauden lagungarri historiografiko eta bibliografikoak, historiaren nondik norakoak etab. aurkeztea baizik! Orain askoz ere hobeto dakigu zer une historiografikotan gauden, orain arte zer egin den, nola eta non egin diren ikerketak, nortzuek egin dituzten ekarpenik handienak etab. Eta oinarri honetatik historiazko, eta bereziki euskal Elizaren historiazko geroko ikerketak eta lanak antolatzeke abagune ezin hobean gaude.

## B) Ekarpinak

Ondorengo hauek aipa genitzake:

1.

- Euskal Herriko Elizaren historia egiteko lehenengo saio serio eta zabal baten hasiera dugu.

— Ez izenez bakarrik, egitez ere Euskal Herria OSO-OSORIK hartzen du Chain material bibliografiko handia duen Iparraldeari dagokion tokia emanez, eta horrela, harekin egindako bigabekeria nolabait ezabatuz).

- Beharbada, frantsesari eta gaztelaniari aurea hartu dien euskarazko neurri handi samarreko histori lan bakarra izango da. Horrek ahalegin handi-handia eskatzen zuen eta bikoitza gainera: bata gai aldetik eta bestea hizkuntza aldetik.

— Ezin uka hau guztiau, euskara zientzietako gai desberdinetan erabiltzeko ahaleginean, ekarpen oso baliotsua izan dela.

2. Lanaren garrantzia.

Galdera hau egin izan da behin baino gehiagotan: baina idatz ote daiteke oraindik euskal Elizaren historiari? Lan honetan, orain arte dagoen bibliografiaren egoera erakusten da... eta horrela asko errazten da galdera horren erantzuna...

Beste aldetik, gogoan izan behar da bibliografian lan asko ditugun arren, hala ere horietariko askok ez dutela oinarritzat hartzeko moduko balio edo kalitaterik. Honexegatik, hain zuzen ere, Elizaren historia, neurri handi batean euskal gizarte-

ren historia ere badena, seriotasunez idazteari ekin beharra dago. Liburu hau, hain beharrezko, desiragarri, baina zaila den euskal Elizaren historia zabal eta serioa idazteko abiapuntu izatea zen nire nahia.

3. Laguntza baliotsua eman didaten bi adiskide eta karmeldar lagun aipatu nahi nituzke hemen eta neure eskerrona agertu: lehenengo eta behin, nire ondoren hitz egingo duen Luis Baraiazarra aipatuko dut, bera izan baita obra honen euskal idazketaren arduraduna. Eta baita Patxi Uribarren ere, dokumentuen katalogoaren zati bat euskaratzerakoan eman duen laguntzagatik.

### C) Gerora begira

a. Esanda dagoenez, orain historiografia aldetik badakigu noraino iritsi garen, zer oinarri dagoen geroko Euskal Herriaren bistori lana egiteko, batez ere erlijio aldetik begiratuta.

b. Norbaitzuek galde dezakete, arrazoi osoz, liburuki gehiago aterako ote dudan, honek 1 zenbakia daramanez gero. Bai, egia da. Liburuki honekin hasi dudana bilduma berri honek sail desberdinak har ditzake, esaterako, histori ikerketak, testu dokumentalak etab. Hainbat liburuki daude nire asmoetan... Baina batek bakarrik burutzea ezinezkoa litzateke. Horregatik beste batzuk zirikatatu nahi nituzke histori lan serio eta eder honi ekiteko.

*Julen Urkiza*